

ENPRESARI APLIKATUTAKO EKONOMIA ZIRKULARRA ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO MASTERRA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



CIRCULAR THINKING
EUSKADI, EKONOMIA ZIRKULARRERANTZ
EUSKADI HACIA LA ECONOMÍA CIRCULAR

AURKEZPENA

Azken bi mendeotan gehiegi ustiatu ditugu geure baliabide naturalak, gero eta urriagoak eta lortzen zailagoak bihurtu ditugularik. Horregatik, laugarren iraultza industrialak garapen teknologiararen jauzi bat baino gehiago da, hazkunde ekonomikoaren eta baliabide naturalen kontsumoaren arteko uztardura hautsi beharko baitu. Azken alderdi honen eskutik etorriko da enpresa eredu berriak eratu, merkatu berriak garatu eta kalitatezko enplegua sortzeko bide eta abaguneak ekonomia zirkularren eremuan.

Eredu zirkular berri honetan, produktu eta materialen balioak ahal denik eta luzeen mantentzen da denboran zehar, lehengaiak, emisioak, hondakinak minimora murriztu eta baliabideak,

ondasunen bizitza baliagarria amaitzerakoan, behin eta berriro sartzen dira ekoizpen zikloan, balioa berriz ere sortuz. Hitz gutxitan, "erausi, ekoitzi, erabili eta bota" leloa baztertu eta "birpentsatu, birdiseinatu, murriztu, berrerabili, konpondu, birfabrikatu, birziklatu eta berreskuratu" lelora pasatzea da kontua.

ZERGATIK AUKERATU?

- Master honi esker biderkatuko dituzu enplegua lortu eta sustapen pertsonala hobetzeko aukerak, ekonomia zirkularrak enpresa eta antolakundeei eman ahal dizkien berritasun eta ekarpen estrategikoak kontutan hartuta.
- Ekonomia Zirkularra Europako Batzordearen lehentasun bat da 2030erako (Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plana, Europako Itun Berdea, Industria Garbirako Ituna), 4.0 industriarekin lotuta.

- Irakasleek esperientzia zabala dute eta espezializatuta dago hainbat diziplinan. Arlo zientifikoan zein sektore publiko eta pribatuan aritutakoak.
- Irakasteko eta ikasteko metodologia berritzailea da eta modu erdipresentzialean ematen da, zure agenda eta konpromiso pertsonalekin bateragarri egin dezazun.

SARTZEKO PROFILA

Ingeniaritzaren eta Ekonomiaren arloan eskarmentu profesionala dutenek lehentasuna izango dute.

IRTEERA PROFEINALAK

Gure ingurune industrial honetan, gero eta gehiago dira eredu zirkularrak aplikatzen edo epe laburrean aplikatu nahi duten

enpresak (ekodiseinua, serbituzazioa, birmanufaktura, bizitza zikloen analisia, ingurumen aitopenen eta beste), non eta era guztietako arloetan, esaterako: automobilgintza, garraio ekipoak, ekipo elektriko eta elektronikoak, makina erreminta, metala, kimika nekazaritza eta oihan zaintza eta ingurumen zerbitzuen azpisektoreak. Graduondokoak gaitasuna ematen die ikasleei negozioarako aukerak identifikatzen ekonomia zirkularren eremuan eta, eredu zirkularrak ainguratzen enpresa antolakuntzaren barruan.

INSTITUZIOEN LAGUNTZA

Masterrak hitzarmenak sinatu ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa den IHOBE, BASQUE ECODESIGN CENTER eta GARBIKER erakundeekin.

EMPRESARI APLIKATUTAKO EKONOMIA ZIRKULARRAREN MASTERRA

OINARRIZKO INFORMAZIOA

- Kredituak: 60
- Hizkuntza: Gaztelania
- Tokia: Bilboko Ingeniaritza Eskola
- Egutegia: 2026ko irailetik 2027ko ekainera
- Irakaskuntza mota: Semipresentziala
- Prezioa ggb: 2.700 €

HARREMANETARAKO

- bie.ekonomiazirkularra@ehu.eus
- Estibaliz Saez de Camara Oleaga
946 018 212 / 946 012 039
estibaliz.saezdecamara@ehu.eus
- Rikardo Minguez Gabiña
946 017 325
rikardo.minguez@ehu.eus

ORDUTEGIA

Ostiraletan 16:00-20:00
Larunbatetan 9:00-13:00



INSTITUZIOEN LAGUNTZA



Basque
Ecodesign
Center




PROGRAMA

IRAKASGAIAK

	ECTS KREDITUAK
1 Ekonomia Zirkularra: Testuingurua eta Ezaugarri Orokorrak	6
2 Produktuen eta Zerbitzuen Ekoizpen-kontsumoaren Ingurumen-eraginak	3
3 Ingurumen Kudeaketa Tresnak Enpresan	3
4 Ekodiseinua eta Ekonomia Zirkularra	3
5 Life Cycle Thinking 1: Kalkulu eta Komunikazio tresnak	3
6 Life Cycle Thinking 2: Produktuaren Ingurumen-aztarna kuantifikatzea	3
7 Ekonomia Zirkularra Enpresan Ekodiseinutik Produktuaren Merkaturatzera	6
8 Ekonomia Zirkularra Enpresan: Ekintzailatza Iraunkorra, Ekonomia Zirkularreko Negozio Ereduak	3
9 Ekonomia Zirkularreko Ekimenak Kasuen Deskribapena	9
10 Ekonomia Zirkularreko Mintegi Praktikoak	9
11 Master Amaierako Lana	12



■ "EZko masterra egitea inflexio-puntua izan zen nire karrera profesionalean. Eskuratu nituen ezagutzak aplikatuz, errazagoa izan zen bertako eta kanpoko hondakinen balorizazioarekin lotutako negozio-lerro berriak ezartzea. Beharrezkoa da enpresak birpentsatzea, jasangarritasunerantz eboluzionatu eta trantsizionatu ahal izateko"
Ainhoa González Lainez
Grupo Campezo Ingurumen Estrategiaren arduraduna
Graduondoaren 2020-2021eko edizioa



■ "Ekonomia zirkularra gure gizartean integratzeko ilusioa duten profilak ez ezik, beharrezkoa den prestakuntza ere eskatzen du, eraldaketa prozesu hori zorrotasun teknikoekin egin ahal izateko"
Alex Garate Arrazola
CEO Ingreen Innovación
Graduondoaren 2022-2023ko edizioa



■ "Zure lanbidea Planetaren arazoei irtenbideak ematea izatea nahi baduzu, hau da zure masterra"
María Fernández Peral
Ekologoa, ingurumenologoa eta Gasteizko Udaleko enpresen ingurumen-kudeaketako teknikaria
Graduondoaren 2019-2020ko edizioa